



# KONTRATUEN SINADURA ELEKTRONIKOA

2023ko uztailearen 10etik aurrera, kontratuak elektronikoki sinatuko dira (beharrezkoa da posta elektronikoko kontua – hotmail, gmail...- eta ziurtagiri digital bat (Bak, BakQ, izenpe, NAN elektronikoa)



Kontratua egingo zaion pertsonak mezu elektronikoa jasoko du bere posta elektronikoa pertsonalean (hotmail, gmail...), sinatzeko kontratu berri bat duela adierazteko. Iritsiko zaion mezua jarraian ikusten dena bezalakoa izango da:



BFA-DFB <Sinadura-karpeta@bizkaia.eus>

Hoy, 16:41

A <A@pruebas.desa>

## Sinadura-karpeta / Portafirmas



Eskaera/Solicitud: **155/S2023**

2023-06-19(e)an sortutako **Kontratua** eskabidea izapidetzeke dago.

Zure ziurtagiri fisikoarekin sinatu behar baduzu, Idazki Desktop ekipoa instalatuta eduki beharko duzu; ez baduzu,  [hemen](#) instalatu ahal izango duzu.

Erabiliko duzun [ziurtagiriak Bizkaiko Foru Aldundiak](#) onartutako bat izan behar du.

Izapidetzeko, jo ezazu ondoko helbide honetara:

[Sinadura-karpeta](#)

La solicitud **Contrato** creada el 19-06-2023 está pendiente de tramitar

Si vas a firmar con tu certificado físico necesitarás tener instalado en tu equipo Idazki Desktop; si no lo tienes, puedes instalarlo [aquí](#).

El certificado que utilices debe ser uno de los [admitidos por la Diputación Foral de Bizkaia](#).

Para tramitarla correctamente acceda a la siguiente dirección:

[Portafirmas](#)

Mesedez, ez erantzun mezu honi. Automatikoki sortutakoa izan da / Por favor, no conteste a este mensaje. Ha sido generado automáticamente. (Err./Ref.: FKSZ)




Dokumentua eskuratu eta sinatu ahal izateko, "Sinadura-karpeta" dioen estekan klikatu beharko duzu. Ondoren, lizenpe zerbitzuaren identifikazio-prozesura sartuko zara, honako pantailaren bidez:



### Euskadiko identifikazio elektronikoa

Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia-k zure autentifikazioa eskatzen du

Aukera ezazu hurrengo identifikazio sistema hauetatik zein erabili nahi duzun:

	<b>NAN/AIZ/PASAPORTEA eta pasahitza</b>
	<b>NAN/AIZ, pasahitza eta koordenadak NAN/AIZ, pasahitza eta SMS kodea</b>
	<b>Ziurtagiri digitalak</b>

BakQ nola eskatu?

Ezetzatu

Beharrezko informazioa sartzeko, hautatutako identifikazio-prozesuaren arabera. Identifikatutakoan, sinadura-karpetan sartuko gara, bertan baitago sinatzekoa den kontratua.

Sinadura-karpetan sartzean, "ikusi dokumentua" estekatik sinatzekoak diren kontratua eta oinarrizko kopia ikusten dira; kontratua beheko aldean ere aurreikusten da. Pantaila berean.




## KONTRATUA

Egoera: Gauzatu gabe


Sinatuko diren dokumentuak hauek dira:

**KONTRATUA** **IRUKI DOKUMENTUA**


**Sinatu** **Atzera bota**



Berrikusi ondoren, sinatu egingo da, “Sinatu” dioen botoi gorria sakatuz. Prozesua orduantxe hasiko da berez, eta lehenengo pantaila erakutsiko da, dokumentua zein oinarritzko kopia berrikus daitezen.




“Irakurri egin ditut dokumentuak” markatu beharko da eta “Jarraitu” sakatu, dokumentuak sinatu nahi baditugu. Sinatze-prozesua egokia izan dela ziurtatzeko, honako pantaila agertuko da:



Pantaila horretatik bertatik, langileak kontratua ikus eta deskarga dezake, lehenik berak bakarrik sinatuta eta, ondoren, GUFEk sinatu ondoren, inplikaturako alderdi guztiek sinatuta.

Sinatze-prozesua burututakoan, bigarren mezua bidaliko da. Bertatik, osorik sinatutako kontratua kontsultatu eta deskargatu ahal izango da. Honakoa izango da mezua:



Uztailaren 10a baino lehenagoko kontratuak sinatzeko, mezu elektronikoa bat bidali behar duzu [ifas.kontratuak@bizkaia.eus](mailto:ifas.kontratuak@bizkaia.eus) helbidera, sinadura elektronikorako bidali behar zaizkizun kontratuen datak adieraziz. Edozein zalantza izanez gero, deitu 944066197-944067669 telefonora edo idatzi mezu bat [ifas.kontratuak@bizkaia.eus](mailto:ifas.kontratuak@bizkaia.eus) helbidera.

M<sup>a</sup> Jose Larrinaga – Hautaketa eta jarduneko hornikuntza arloko burua